Editorial



Luis Alejos

# En defensa de nuestros montes

LA naturaleza está expuesta a múltiples amenazas, provenientes incluso de actividades que consideramos alternativas válidas para reducir las agresiones medioambientales. Es el caso de las energías renovables. Nuestras sierras se cubren de artefactos mecánicos tan descomunales e impactantes, que ni Don Quijote los habría confundido con gigantes. Un caso paradigmático, que entraña un modelo de desarrollo insostenible y que incluso vulnera la legalidad, es el planteado en Ganekogorta y Jesuri. Estos montes dominan la saturada cuenca industrial del Nervión, en torno a la cual se apiñan las densas concentraciones humanas del Bilbao metropolitano y valle de Ayala. Medio millón de personas ven cada día el Ganekogorta. Debería bastar este dato: saturación industrial y poblacional, para que tales cumbres se respetasen, dado que constituyen reductos naturales, más que aislados, sitiados por el impacto global del entorno. Aparte de motivaciones culturales y medioambientales, tenemos una razón poderosa para reclamar el amparo de estos emblemáticos montes: su popularidad, basada en el uso y disfrute colectivo, los convierte en parques periurbanos merecedores de una estricta protección.
Deseamos y esperamos que la obsesión por urbanizar e industrializar todo el territorio, sin excluir espacios con gran valor paisajístico y simbólico, quede anulada mediante una declaración de impacto ambiental negativa. De lo contrario, las acciones promovidas por federaciones y clubes de montaña, contando con el apoyo de asociaciones locales y ecologistas, tendrán que erigirse en clamor popular. Si es preciso, la consigna coreada hace cuatro décadas en defensa del valle de Belagua, y la que veinte años atrás logró paralizar las canteras de Atxarte, se transformarán en: "Zain dezagun Ganekogorta", "Jesuri bizirik". Por lo pronto, en la consulta realizada en Orozko sobre la proyectada central eólica de Jesuri, el 84,9 % de las personas que participaron se opusieron a su construcción.
Aceptar la energía solar y eólica como alternativa a la proveniente del carbón, fisión nuclear y combustibles fósiles, no implica acatar su emplazamiento indiscriminado. La instalación de centrales en zonas de montaña no puede tener como límite el espacio disponible, pues constituyen un patrimonio natural que, caso de ser destruido, no se puede recuperar, reciclar ni renovar. Por tanto, convendría dirigir ya la vista hacia la inmensidad del océano. No está de más recordar que las aguas cubren tres cuartas partes del planeta, y que existe la tecnología adecuada para instalar centrales eólicas en el mar, alejadas de la costa. Los montes que han sobrevivido a la acción destructiva de las excavadoras, las torres metálicas y los tendidos eléctricos, merecen una moratoria para continuar siendo lo que siempre fueron: nuestro paisaje cotidiano, el pulmón verde de las áreas fabriles y urbanas, un espacio insonorizado donde disfrutar del silencio, un balcón con vistas, sin más límites que el horizonte. Las montañas que destacan por su reconocida singularidad y valores ancestrales, deben ser respetadas como una herencia milenaria que pertenece a las generaciones futuras.

# *Geure mendiak babestu nahian*

*NATURA mehatxupean dago, baita ingurumenari eginiko erasoak murrizteko aukera baliagarrietako batzuen aldetik ere. Halaxe gertatzen zaigu energia berriztagarriekin. Gure mendilerroak estaltzen dituzten tramankulu mekanikoak hain dira eskerga eta txundigarriak, non On Kixotek ere ez baitzituzkeen erraldoiekin nahasiko. Garapen eutsezinezko eredu paradigmatikoa dugu Ganekogorta eta Jesuri mendietan planteatutakoa, legaltasuna ere urratzen duena. Industriaz asetako Nerbioiko ibarrean gailentzen dira mendi hauek, haien inguruan Bilbo metropolia eta Aiara ibarreko giza kontzentrazio handiak metatzen direlarik. Milioi erdi gizakik ikusten du egunero Ganekogorta. Datu hau aski izan behar genuke: industria eta biztanleria saturazioa, gailur hauek errespeta zitezen, isolatuak baino gehiago, ingurunearen inpaktu orokorrak setiaturiko natur esparruak direlako. Kultura eta ingurumenarekin loturiko kausak ez ezik, badugu beste arrazoi indartsu bat ere mendi enblematiko hauen babesa eskatzeko: haien ospea, herri erabilera eta gozatzean oinarriturik, babes irmoa merezi duten hiri inguruko parke bihurtuak baitira.*
*Paisaia nahiz sinbolo gisa balio handia duten eremuak ere hartzen dituen lur eremu osoa urbanizatu eta industrializatzeko itsukeria, ingurumen inpaktuko deklarazio negatibo batek deusezta dezan nahi eta espero dugu. Hala ez balitz, mendi federazio eta taldeek bultzaturiko ekintzak, eta herrietako elkarteen nahiz talde ekologisten laguntzaz, herri aldarri bilakatu beharko dira. Behar balitz, duela lau hamarkada Belagua ibarraren defentsan oihukaturiko mezua, eta orain hogei urte Atxarteko harrobiak geldiaraztea lortu zuena, "Zain dezagun Ganekogorta", "Jesuri bizirik" bihurtuko dira. Dagoeneko, Jesurin aurreikusitako zentral eolikoaz Orozkon eginiko galdeketan, parte hartu zutenen % 84,9a agertu zen eraikuntzaren kontra.*
*Ikatzetik, fisio nuklearretik edo erregai fosiletatik lortzen denaren alternatiba gisara, energia eolikoa eta eguzkitikoa onartzeak ez dakar haren kokaera bereizgabeari men egitea. Daukagun espazio osoa ezin da izan mendiguneetan zentralak ezartzearen azken muga, hondatuz gero, ezin berreskura, berzikla edo berrizta litekeen natur ondarea osatzen dutelako. Hortaz, itsasoaren handitasunera begira jartzea komeniko litzateke. Gogora dezagun urek lurraren hiru heren estaltzen dituztela eta itsasoan, kostaldetik urrun, zentral eolikoak ezartzeko teknologia egokia badagoela. Hondeamakinen, dorre metalikoen eta elektrizitate hariteriaren ondorio hondatzailetik bizirik irten diren mendiek luzapen bat merezi dute, orain arte izan direna izaten segitzeko: gure eguneroko paisaia, lantegi eta hiri eremuen birika berdea, isiltasunaz gozatzeko espazio hosgabetua, hortzemugarainoko ikuspegi zabaleko balkoia. Ezaugarri ezagunengatik eta antzinako balioengatik bereizgarriak diren mendiak errespetatu beharra dago, etorkizuneko belaunaldiena den mila urteko oinordetza dira eta.*

